

Pedro Angel Garcia Chasco

«Ni beti kontrolpean, bai Euskal Herrian eta bai Habanan!»

Habanan diren frantziskotarretan euskaldun bakarra. Makina bat ziren garai batean! Egun, hiltorian dagoen espezie bateko kide. Goizetik arrats, behartsuenei laguntzen ematen du eguna. Euskal Herriaz hizketan lotu eta hitz inkontinentziak jotzen omen du. Orduan, puska baterako erretolika du...

JON ARIZKUN

Argazkiak: Zaldi Ero

Frantziskotar euskalduna Habanan.

Garai batean berrehun baino gehiago ginen frantziskotarrak hemen. Gehienak euskaldunak. Donostian frantziskotarren probintzial izandakoa, Pablo Lete, Arantzazuko basilika egin zen garaiko nagusia, Ameriketara etortzen zen hango amabirjinaren zenbait oroigarri hemen saldu eta dirua biltzeko. Harako ari zen, jakina, Arantzazuko basilika egiteko. Bada, hegazkina hartu eta Bermudako Triangelu inguru horretan itsasora jausi! Istripuan hil zen Pablo Lete, beste askorekin batera. Arantzazun sartu berri nintzen. Ni 1952ko irailean sartu eta hegazkina abenduan itsasora erori. Kaperara joan ginen, ohera baino lehen erreztazera, eta zaintzen gintuen fraideak esan zigun: "Kubatik heldutako azken berriek adierazi digutenez, hegazkin istripuan hil da aita probintziala. Harekin batera hil da idazkaria zuena ere". Nik hiru hilabete eskas neraman Arantzazun eta "aita probintziala" aditu nuenean, "horixe izen arraroa!", pentsatu nuen. Gero, Leteren ondorengo probintziala Arantzazuko lanak ikustera etorri zenean esan zidaten: "Hik aita probintziala zer ote zen jakin nahi huen, ezta? Bada, hortxe probintziala!". Orduan ulertu nuen: aita pro-

bintziala gainerakoak bezalako fraidea zen, baina agintean zegoena. Hamar urte nituen!

Labrazatik heldu zinen zu Arantzazura.

Bai. Madrilen jaio nintzen baina bost urte nituela gurasoak Labrazara joan ziren. Han, sei urte nitueneko banekien irakurtzen, eta apaizak lehen jaunartzea egiteko baimena eman zidan, beste zenbaitekin batera. Eskolara baino lehen elizara joan eta apaizari laguntzen nion. Akolito izan nintzen, eta giro horretan sartuta nengoelarik, apaiz izan nahi nuen. Amak ere jakin zuen eta "hi, lupua baino gaiztoago eta egunero jaunartzen!?" . Eta nik, "bada, Teresa andreak komulgatzen du bada, egunero!". "Bai, baina hura santu handia duk!". Eta arrazoi zuen, oso ona zen, santua. Ni ez, nonbait.

Etxean eliz giroa, beraz.

Gure aita, adibidez, oso zen sines-tuna. Labrazatik Logroño osoa ikusten da kataloxa bidez. Francoren gerra garaian han ikusten nuen aita, hiri hartara begira. "Halako eliza eraitsi ditek!", batean. "Halako eliza jo ditek!", bestean. Erlijioa eta aberria salbatu behar omen zituzten nafar erreketek! Bai, horratik! Gure aita gazterik hil zen, 49 urte zituela, metraila zuen-eta

"Zarautzen, eliztarretako batek
500 pezeta kobratzen omen zituen
nire sermoien ordainetan,
poliziari laburpen egitearren
alegia, eta substantzia
izanez gero, 2.000"

gerraz gero. Gainera, harriak giltzurrunetan. Azkenean, minbiziak hil zuen. Gertatu zen gure familia Madrildik Labrazara etorri, etxea egin eta zorretan sartu zela. Dirurik ez, hortaz, gu umeok hara edo hona ikastera bidaltzeko. Orduan, gure aitaren lagun batek, Arabako Diputazioan lan egiten zuenak, urtean beka bat ematen zuen, mutikoak Gasteizko apaizgaitegira joateko. Nonbait, laguntza haietako bat niretzat izango zela agindu zion gure aitari. Ikasketak doan izango nituela, alegia. Aita oso pozik, jakina! Bederatzi urte nituen nik. Urte hartan bertan, gure herriko gazte bat apaiztu zen, Pedro Amillano. Nik ez nuen ezagutzen, noski. Horrekin batera, sasoi hartako predikatzailer ospetuek handiko bat etorri zen Labrazara, Aita Ezkurra... Baina ezin zuenez aste osoan hitzaldi egiten jardun, Arantzazun apaiztu berri ziren bi gazte ere etorri ziren. Haietako batek, hitzaldian, euskaraz egin zuen pasarte bat. Eta haren laguna barrez sakristian! Guk ez genekien latinez ari zen

edo zertan... Nonbait, haria galdu eta euskaraz jardun zuen, batek daki zer esaten, harik eta atzera hariari heldu zion arte; orduan, gaztelaniaz segitu zuen. Prediku egiten zuen lehen aldia zen. Nik, orduan, ez nekien euskara bazenik ere. Arantzazura heldu eta orduantxe jakin nuen. Hura ustekabea! Izan ere, gutxiengo ginen euskaraz ez genekienok...

Nortasun agiria

Pedro Angel Garcia Chasco (Madril, 1942). Labrazan (Araba) hazi zen, bederatzi urte zituela frantziskotarren bidea hartu zuen arte. Arantzazun eta Zarautzen (Gipuzkoa) egon zen, eta Habanara heldu 1995ean. Behartsuentzako lanean ari da Kubako hiriburuko Paduako San Antonio-ko parrokian, zerbitzu sekretuekin hamaitan borrokan. Erreferentzia da euskaldunentzat, bera nahi izaten dute aberri eguneko ospakizunean, komunitateko kideren baten heriotzan, edo gisakoetan. "Txasko", ikusten duen errealitatearekin konforme ez dagoen frantziskotarra.

Horrela joan zinen fraide...

Bai. Labrazako hura apaiztu, Arantzazuko predikatzailerak herrira etorri, herriko abadeak haiekin hitz egin, haiek nire eskola-koadernoak ikusi... Azkenean, ni ere berotu, eta Arantzazura! Aitaren disgustua! Hark Gasteizko apaizgaitegirako nahi ninduen, Diputazioan lan egiten zuen lagunaren bekaren bitartez ikasketak doan egiteko moduan... Baina nik, Arantzazura nahi nuela. Bestalde, Arantzazun denetarik zegoen, pobre eta aberats: Azpeitiko Loiolako Kiruri jatetxeko semeak hainbat pagatzen zuen. Gure aitak, aldiz, zorretan, ez zuen modurik. "Tira, ahal duzuna egin





ezazu, pezeta bat eguneko”, esan zioten Arantzazun. Horixe pagatzen zuen gutxien ordaintzen zuenak: pezeta bat eguneko. Aitak pena izan zuen hasieran, apaiz joan beharrean fraide joan nintzelako, baina gero oso gogo onez hartu zituen fraideak, misiolari joango nintzela-eta, Ameriketara. Horiek denak bederatzi urte nituela! Hortik atera kontuak!

Eta Ameriketara joan zinen, misiolari.

Orain Kuban naiz, baina ez pentsa Arantzazutik zuzenean etorri nintzenik. Baita zera ere! Arantzazun teologia bukatu eta Bilbora joan nintzen, pastoral eta gainerakoak zegozkidan... Ikasketak bukatuta ere, artean gazte nintzen apaizteko. Nire ikaskideak apaiztu ziren, ni ez. 1965a zen, nik 23 urte nituen. Ameriketara etortzeko eskaria egin nuen. Borondatezkoak eskatu zituzten Korea, Kuba eta Boliviarako. Nik ez nuen Korea nahi, hizkuntzagatik. Nahiago nuen leku errazagoa. Kuba, esaterako, baina ez zidaten utzi. Zientziatik egin nuen batxilergoa, eta adar hartako irakasle gutxi zituzten Arantzazuko apaizgaitegian. Ez zidaten alde egiten utzi nahi. Unibertsitatera joan nendin nahi zuten, zientziak ikastera. Nik esaten nuen bazitekeela ikasteko balio izatea, baina ez irakasteko. Besterik ez bazen ere, uzteko pare bat urte Arantzazun irakasten, ikusiko zela balio nuen ala ez. Nik uste ez nindutela Arantzazun nahi, jenio bizi-koa nintzen-eta. Aita probintzialarekin hitz egin behar izan nuen, Aita Mendiarekin. Entzun zidan, baina kasurik egin ez. “Arrazoi sendoak dituzu, baina probintziaren premiei ere kasu egin beharra daukat”. “Hor konpon zeure kontzientziarekin, nik esan beharrekoa

“Aizu, aizu!”

“Habanara etorri nintzenean, hiru xahar ziren komentu honetan. Bata, Elgetakoa. Iluntzean, telebista ikusi beharrean, oinez irteten nintzen. 1995. urtea zen eta jendea, hemen, dena beharrean zen. Afalondoan, ni pasieran eta emakume baten hotsa: ‘Aizu, aizu, eraman nazazu zurekin, zuk nahi duzuna egingo dut!’. ‘Ez, ez, honezkero zahartuta nago!’”.

esan dut!”, esan nion, frantziskotar jarrerara txikia erakutsiz eta haserre. “Zarautza joango zinateke?”, galdetu zidan. Haren gelatik irten eta zain nituen lagunak. “Eta, zer esan dik?”. “Zarautza bidali naik!”. Haren galdera ez zen-eta galdera. Izatekotan ere, galdera erretorikoa. Agindua zen!

Zarautzen kaleko giroa ezagutu zenuen. 60ko hamarkadaren amaiera, 70ekoa... Garai beroa Euskal Herrian.

Sistema zaharrak agintzen zuen han. Baina bazetorren krisi garaia... Baziren bi lagun, Koxme eta Txanton, herrian oso ezagunak. Tabernatik tabernara ibiltzen ziren iragarki jartzten, Juventud Antoniana izenekoaren egingtzak eta gainerakoak zabaltzen, hitzaldiak antolatzen eta. Eta bete egiten zuten antzokia. Haiek kaleko lana egiten zuten; nik, hitzaldiak. Bi talde genituen, batean gizonak, bestean andreak. Tartearen ziren ELAko batzuk, HOAkoak, ETA Berrikoak... Bide batez esanda, majo izorratu gintuzten ETA Berrikoek.

Konturatzen ziren gurea zela Zarautz osoa, eta ezin eraman! Gure kontrako salaketak egin zituzten. Maiatzaren lehenengo baten biharamunean, egunkarian: “Hamahiru atxilotu Zarautzko frantziskotarren egoitzan”. ETA Berriko haien azpilana izan! Horiek eta handi-koak egin zizkiguten... Kontu zaharrak dira.

Kontu zaharrak, baina berriak ere bai. Saltsan zaitugu beti. Han borrokan, hemen borrokan... Agintedunekin ezin konpondurik.

Izaera kontua... Apaiztea gazteegi nintzelako atzeratu zidaten. Baina diakono egitea, aldis, gaizto izateagatik. Ez ninduten onartzen.

Gernikako Institutuan ere jardun zenuen, Erlijio irakasten. Han ere arazoak...

Bai, bi apaiz ziren han, nirekin batera. Bien artean bota ninduten. Franco hil zen urtean gertatu zen. 1975ean.

Leku guztietan arazoak.

Kar, kar, kar... Baina inoiz ere ez ninduten kartzelara sartu! Behin, hitzaldi bat egin nuen, giza eskubideak eta hau eta hura. Lagun batek, Alejandro Oiarzabal donostiarrak, nire hitzaldia- ren eskema jaso eta hitzaldi bertsua egin zuen beste zenbait lekutan. Gure arteko batzuei ez zitzaien gustatu. "Nola liteke horrelakorik orain esan?". Eta nik: "Eta noiz, bada? Orain ari dira jendea atxilotzen!". Poliziak ere fitxa egin zidan: "Garcia Chasco, Madrilen jaioa..."

(Gelara etorri zaigu atezaina. Emakume bat etorri omen zaio. Aita Chascoren beharrea da. Utzi nau eta irten da gelatik. Hamar minutu, ordu laurdenera itzuli da)

... Hemen, etxea konpondu eta iruzur egin omen duzu. Ez omen da legezkoa. Estimatu beharrea! Han dator, gobernuaren salataria, kontu eske! Inprimakiak bete behar ditugula diote: zehatz adierazi zertan ari garen, nondik inguratu dugun zementua edo dena delako materiala, zein etxetan egin dugun obra. Ezin nahi bezala lagundu jendeari...

Hori ilegala da?

Hemen dena da ilegala! Baita etxea erostea ere. Trukatu besterik ezin duzu egin. Eta nola lagundu oraintxe etorri zaidan andreari, adibidez? Eta, askotan, ez dakizu jendea onez datorren, edo amarrukeria. Seguritateko bat, esaterako, bi urte eta erdian jardun zitzaidan diru ateratzen. Dirua, jendeari lagun geniezaion galarazteko, ez beste ezertarako. Behin, kazetari bat ekarri zidan, esanez herrialdetik alde egin nahi zuela eta laguntza eske. Nik 300 dolar inguratu nizkion, hemendik irteten laguntzeko asmotan. Dirua seguritateko hari eman -arte

nik ez nekien zerbitzu sekretukoa zenik, jakina-, eta, zer egin zuen diruarekin? Oporretara joan Costa Ricara. Horrela. Ez dute nahi guk jendeari laguntzerik.

Amarrukeria?

Kazetaria etorri zitzaidan, artikulua idazten ari zela esanez. Uhartean gauza asko gaizki zeudela salatu nahi omen zuen, nire laguntza nahi zuela. Hark nire kolaborazioa nahi zuen, bai, baina ni kakazteko, gobernuak aitzakia izan zezan ni hemendik kanporatzeko. Amarrua zen, jakina. Kazetaria ez zen ur garbia. "Eske- rrak frankismoan zaildu ginen eta badugun salatarien berri!", esan nion neure buruari.

Seguritatekoak ondoan dabilzkizu...

Bi urte eta erdian dirua atera zidan hura, seguri- tatekoa! Hala zela esan zidatenean, joan eta zuzen-zuzen esan nion: "Seguritatekoa haizela esan zidatek. Kontuz ibiltzeko hirekin". "Alaba preso diat Camagüey-n eta badakik, ni ere hone- tara behartzen naitek!". Bai, alaba preso zuen, baina presoan artean nahastu eta haien mugi- menduak zaindu eta kontrolatzeko. Sator lanean, alegia. Eta jakin ere, ezustean jakin nuen. Haren etxepean, goiko solairuan bizi zen emakume batek eman zidan albistea: "Habana Zaharreko itsua zela eta ez, bostehun atera genizkion Aita Chascori. Beste zera horretan, berriz, hobe dugu tentuz ibili...". ari omen ziren, eta zer ari ziren esaten auzoko emakumeak entzun! Katekistari hots egin zion: "Ezin dizut telefonoz adierazi. Kontu larria dut, Aita Chascori dagokiona". Joan nintzaion delako emakume hari eta kontatu zidan: "Begira, gure aita erretretan sartua da, baina seguritatekoa zen. Eta zuk ondoan dabilki- zun laguna ere seguritatekoa da!". Delako morroi hori hona etorri zen hurrengoan esan nion: "Merke saldu nauk! Horixe zuan, beraz, hire egitekoa! Batean eta bestean lortzen dudan diruaren herena heure sakelan gorde, heuk gas- tatu, nik ongia egiterik izan ez dezadan! Alde egik hemendik, egin ezak nahi duan bezalako

Joxemari Larretxea

"Hemen hil zen, 1997an. Hileta meza egiteko hots egin zidaten eta joan nintzen. Ni beti konpondu naiz ondo hemen dauden ETakoekin, nahiz eta badakiten biolentziaren kontra nagoela. Bada, Larretxearen senideak etorri, ni hara azaldu eta gaztelaniaz hasi zitzaizkidan. Hitz egiten hasi orduko jabetu nintzen eta: 'Zuek euskaldunak zarete, ezta?'. Errenteriakoak... Inguru honetan bizi zen, baina bisitan joan nahi izan nuenerako, hila! Pena..."

Artezblai ARGITALETXEAREN AZKEN ARGITALPENAK

FTI - Antzerkiola Imaginarioaren liburuak

8 Olivetti poetiko - Mundopolski, erreboltaren ziaboga

Yuri Sam. Otoitza - Au Revoir triunfadoreak

Yorick Liburudendan edo www.libreriayorick.com eskura ditzakezu

San Frantzisko, 15ren parean, 48003 - Bilbao / Tel: 944 795 287 / www.libreriayorick.com / info@libreriayorick.com



txostena, bidal nazatela Kubatik nahi badute, baina alde egin hemendik, urrutil!". Hamaika horrelako, motel! Beste behin, barnealdeko probintzietan, gazte katolikoak aztoratzera bidali zuten nik izandako apaizgai bat. Logopeda zen, oso sortzailea, artista, irakaslea... Bizian ikusi dudun gaitasun handieneko mutila. Bada, satorra gertatu hura ere! Nonbait, hebain-hebain egin zuten, eta salati lanetara behartu. Ezin fidaturik gabilta. Esana dut lehen ere, eskerrak frankismoan zaildu ginen! Ongia egin nahi, kasu mordoa laguntza behar dutenak, ezin iritsi, eta gainera seguritatekoak barruraino sartuta!

AZKEN HITZA

CIAkoa

Habanan errefuxiatuak dagoenaren hitzak: "Behin, txakurrak etorri zitzaizkidan, grabazio batzuk transkribatzeko esanez. CIArentzat lanean ari zen batenak omen ziren. Hasi naiz entzuten, eta apaiz biren arteko euskarazko elkarrizketa, Habanatik Euskal Herrira, hemengo bokazioak gora eta behera. Han ez zen CIAkorik ez antzekorik. Joan eta horixe esan nien, eta ez etortzeko berriz euskarazko elkarrizketak itzultzeko esanez".

Habanutik hizketan ari zen ahotza Chasco zen, jakina. Nor bestela?

Kanabera ebakitzen

"Garai batean neska eta emakume mordoa zebilen auzo inguru honetan. Norbaiti, ahala zuen norbaiti, esan nahi dut, ez zitzaion gustatu, eta protestatu jo zuen, edo auskalo. Bada, ostegun batean, polizia etorri eta parean harripatu zituztenak sartu eta eraman zituzten. Trena bete eta kanabera ebakitzeko lanean jarri omen zituzten!".

Kontrolpean...

Ni beti kontrolpean! Bai han, Zarautzen, Donostian eta bestetan, eta bai hemen, Habanan. Zarautzen, eliztarretako batek 500 pezeta kobratzen omen zituen nire sermoien ordainetan —poliziarri laburpen egitearren, alegia—, eta "substantzia" izanez gero, 2.000.

Substantzia?

Bai, ohi baino zer edo zer gogorrago esan banuen, alegia. Dena dela, hemen askoz ere antolatuago dago hori. Horra CDR-ak (Comité de Defensa de la Revolución, Iraultza Defenditzeko Batzordea). Frantziskotarrak fitxatuta gaude hemen. Telefonoa ere kontrolpean. Eta e-posta ere bai!

Euskaraz jardunda ere?

Nolako tenplean dauden euskaldun batzuk...

Euskaldun batzuk?

Euskaraz dakiten batzuk! Nire mezu eta solasak itzuli ezinik ez dute, agintzen badiete, behintzat. Elizari dagozkion gaiak edo bestelakoak lantzen ari ote naizen jakiteko! Dena dela, ez dugu paranoian ere erori behar: mezuaren batzuk itzularazi dizkietela esango nuke nik, baina askorik ez. ■

Sanjoanetako bertso saioa

Eguna: ekainak 23, astelehena • **Ordua:** 19:30
Lekua: Tolosa-Zerkausia • **Sarrera** doan.

Bertsolariak: Anjel Mari Peñagarikano, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia.
Gai-jartzailea: Iker Iriarte.

TOLOSAKO UDALA

Antolatzailea:
Euskara Batzordea

